

# Erregistroak eta Administrazioaren baimenak

## Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorra (REGEPA)



Urtarrilaren 16ko 9/2015 Dekretuak (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-710>) nekazaritzaren ekoizpen primarioan elikadura produktuen higienezaren arloan arautegia aplikatzeko baldintzak arautzea du helburu. Honen arabera, **Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorra** eratzen da.

REGEPA estatuko **nekazaritza ustiapen guztiak biltzen dituen datu base nazionala** da. Bai nekazal ustipen edo abeltzaintzako ustipen mixtoak, edozein tamainakoak eta laguntzak jasotzen ez badituzte ere, izen-ematea derrigorrezkoa da.

**Erregistro autonomiko desberdinetan jasotako datuak** -Euskadiko kasuan Nekazaritzako Ustiategien Erregistroa (NUE)- **REGEPARA bidaltzen dira ofizioko.**

REGEPAK, **gutxienez ondorengo datuak jasoko ditu:**

- Ustiategiaren titularraren izena.
- Ustiategiaren izena.
- Kontaktu datuak eta helbidea.
- Ustiategiaren inguruko datuak: SigPac kodeak, azalerak, laborantzak.
- Abeltzaintza ustiategi mixtoak AUE (Abeltzaintza Ustiategi Erregistroa) kodea.

Ustiategi bakoitzak **10 zenbakiko REGEPA kode** bat jasoko du:

- Ustiategiak azalera haundiena duen autonomi-erkidegoko bi zenbaki.
- Ustiategiak lurralde-oinarri gehien duen probintziaren bi zenbaki.
- Ustiategia identifikatzen duen jarraiako sei zenbaki. Ustiategiak bere lurralde-oinarria aldatu eta zati haundiena beste autonomi-erkidego batean ezarri ezean, zenbaki hauek ez dira inoiz aldatuko.

REGEPARA sarbidea - MAPA ([https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/higiene\\_y\\_trazabilidad/registro\\_general\\_de\\_la\\_produccion\\_agricola\\_regepa/](https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/higiene_y_trazabilidad/registro_general_de_la_produccion_agricola_regepa/))

## Nekazaritza Ustiategien Erregistroa (NUA)



EAEko Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17/2008 Legearen ([http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-preview/es/contenidos/ley/bopv200807234/eu\\_def/index.shtml](http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-preview/es/contenidos/ley/bopv200807234/eu_def/index.shtml)) 11. artikulua xedatzen du **Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean inskribatuta egotea ezinbesteko baldintza** izango dela, Euskadiko administrazioek nekazaritza eta elikadura politikaren esparruan ezartzen dituzten sustapen laguntzak eta neurriak eskuratzeko.

Hala dagokionean, **erregistroan gutxienez honako datu hauek** jasoko dira:

- Ustiategiaren titulartasunari buruzko datuak.
- Ustiategiaren ezaugarri orokorrei buruzko datuak: kokapena, ustiategiari dagozkion ekoizpen orientazioa, lurrak, instalazioak, eraikinak, eraikuntza-lanak eta makineria.
- Ustiategiaren kuoten, ekoizpen eskubideen, emakiden eta horien transmisioen inguruko datuak.

Nekazaritza-ustiategi bakoitzari **identifikazio-zenbaki bat esleituko zaio**, eta ustiategia osatzen duten lur, eraikuntza edo instalazio nagusi gehienek hartzen dituzten lurren udalerrian inskribatuko da.

**Foru Aldundiak dira izen-ematea kudeatzen dutenak.** Interneten bidez edo presentziala egingo da, edo Eskualdeko Nekazaritza Bulegoen (ENB) bidez.

+ Foru Aldundietako eskaera orriak

+ Informazio interesgarria

## Defentsa fitosanitarioko Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofiziala (ROPO)



1311/2012 ED (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2012-11605>)a, irailaren 14koa, produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorraren markoari buruzkoa, **Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofiziala** eratzen da.

Bai produktu fitosanitarioen **fabrikazio eta salmentarekin zerikusia duten enpresak, bai tratamendu enpresak, aholkulariak eta erabiltzaile profesionalak ROPOn inskribatuak egongo dira.** Erabilera ez profesionalerako baimendutako merkaturatzen diren fitosanitarioak salbuespen. Nolanahi ere, horrek lau sektore ditu:

- Horniduren sektorea
  - Fabrikazioa, merkaturatzea
- Tratamenduen sektorea
  - Tratamenduen enpresak
- Aholkularitzaren sektorea
  - Aholkulariak
- Sektore profesionala
  - Erabiltzaile profesionalak

Erregistroaren kudeaketa Foru Aldundiei dagokie, baina erregistroa bakarra izango Euskal Autonomi Erkidegorako.

ROPOra sarbidea - MAPA (<https://www.mapa.gob.es/app/ropo/Default.aspx>)

## Transakzio eta Operazio Erregistro Elektronikoa (RETO)

---



1311/2012 ED (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2012-11605>)an ezartzen diren produktu fitosanitarioekin gauzatutako transakzioen erregistroa errazteko, **Transakzio eta Operazio Erregistro Elektronikoa** gauzatu da.

Erregistro erreminta izango da ondorengoentzat:

- **Erabilera profesionala duten produktu fitosanitarioen ekoizleek eta banatzaileek:** Hirugarren bati egindako salmenta eragiketa guztiak erregistratu beharko dituzte.
- **Erabilizaile profesionalak eta hirugarren bati zerbituzua ematen duten tratamendu enpresek:** Egindako operazioen erregistroa eraman beharko dute.

RETOra sarbidea - MAPA (<https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/productos-fitosanitarios/reto/>)

## Nekazaritza Makineriaren Erregistro Ofiziala (ROMA)

---



1013/2009 EDa (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2009-11678>), ekainaren 19koa, nekazaritza makinariaren erregistroari eta karakterizazioari buruzkoa, eta 346/2012 EDaren (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2012-2586>) ondorengo aldaketen arabera, nekazaritza maquinaria guztia **Nekazaritza Makineriaren Erregistro Ofizialean** inskribatzeko xedeak ezartzen dira.

ROMAn ondorengoak **inskribatuko dira**:

- **Nahitaezko matrikulazioa** duen makinaria.
- Edozein **laguntza ofizialarekin erosten den** makinaria.
- **Tratamendu fitosanitarioak burutzeko** ekipo guztiak.
- **Ongarriak zabaltzeko** ekipo guztiak.

ROMAra sarbidea - MAPA (<https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/medios-de-produccion/maquinaria-agricola/>)

## Ziurtagiria: Fitosanitarioen Aplikazio Ekipoen Azterketa Teknikoa (ITEAF)



1702/2011 ED (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-19296>)a, azaroaren 18koa, **produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskapenei buruzkoa**, Fitosanitarioen aplikazio ekipoen azterketa teknikoaren xedea ezartzen ditu.

**ROMAn inskribatuta** dauden fitosanitarioen aplikaziorako ekipo mugikorrek, **aldizkako ikuskapena** jasan beharko dute, beti ere, ondorengo makina mota izanik:

- Ihinztargailu hidraulikoak (de barras o pistolas de pulverización).
- Ihinztargailu hidroneumatikoak.
- Ihinztargailu neumatikoak.
- Ihinztargailu zentrifugoak.
- Hauts-zabaltzaileak.
- Aireontzietan instalatutako aplikazio ekipoak.
- Negutegietan edo bestelako lokal itxietan instalatutako ekipoak.

**Araudi hontako esparrutik at motxila ihinztargailuak, 100 litrorainoko depositoa duten eskorga ihinztargailuak** eta **aurretik ez aipatutako bestelako ekipo** estatiko edo mugikorrek.

Ikuskapenaren ondorio **honakoa lortuko da**:

- Beste atal batzuen artean, ikuskapena aldekoa edo kontrakoa den zehazten den **ziurtagiria**.
- Ekipoan ikuskatutako elementuak, makina motarekin, bere ezaugarriekin eta aurkitutako akatsen kalifikazioarekin erlazionatzen duen **txostena**.

ITEAFera sarbidea - MAPA (<https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/medios-de-produccion/maquinaria-agricola/inspecciones-equipos-aplicacion-productos-fitosanitarios/>)

ITEAF enpresa baimenduak ([https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/medios-de-produccion/iteafautorizadas15-11-2018\\_tcm30-490392.pdf](https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/medios-de-produccion/iteafautorizadas15-11-2018_tcm30-490392.pdf))

## Nekazaritzako lursailei buruzko informazio geografikoaren sistemak (SIGPAC)

---



1077/2014 Errege Dekretua (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2014-13258>), abenduaren 20koa, **nekazaritza lursailen informazio geografikoaren sistema arautzen** duena.

Nekazaritzako lursailei buruzko informazio geografikoaren sistemak (SIGPACek) ahalbidetu egiten du **nekazari eta abeltzainek aitortutako lursailak geografikoki identifikatzea, ereindako edo ganaduak erabili duen azalerarekin loturiko edozein laguntza-erregimenean**.

SIGPACen adierazitako laborantzak eta azalerak dira PAC edo FEADER laguntzak lortzeko erreferentzia ezartzen dutenak. Administrazioak egin beharreko kontrolak errazten ditu, bide batez, nekazarien adierazpenetan sortzen diren akatsak, edo datuak gordetzerakoan sortzen direnak identifikatzeko erreminta erabilgarria da. Antzemandako kontrol

eztabaidagarriak ebazteko euskarri dokumentala izango da.

SIGPAC Euskadira sarbidea ([http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/r50-468/eu/contenidos/informacion/sigpac/eu\\_6713/sigpac.html](http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/r50-468/eu/contenidos/informacion/sigpac/eu_6713/sigpac.html))

---

Estatuko SIGPACera sarbidea (<https://www.mapama.gob.es/es/agricultura/temas/sistema-de-informacion-geografica-de-parcelas-agricolas-sigpac-/default.aspx>)  
**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)